Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko uztailaren 15a, asteazkena — 132 — Miércoles, a 15 de julio de 2026

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## MUTRIKUKO UDALA

*Iragarkia*

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko ekainaren 24ean egindako bilkuran Mutrikun berdintasun alorrean diharduten elkarte, erakunde eta instituzioentzako dirulaguntzak emateko programa arautzeko 2026 ekitaldiari dagozkion oinarriak onartu zituen.

Kontuan harturik adierazitako oinarriak, dirulaguntza honi dagokion deialdia burutzen da eskariak aurkezteko epea irekiz.

Mutriku, 2026ko ekainaren 30a.—Alkatea. (4571)

*Mutrikuko Udalaren Berdintasun Sailaren dirulaguntzen Oinarri arautzaileak. Emakumeen elkarte, elkarte feminista eta LGTBIQ elkarteentzako dirulaguntzak.*

*I. Xedea.*

Oinarri hauen xedea da Mutrikuko emakumeen elkarteek, elkarte feministek eta LGTBIQ elkarteek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko garatzen dituzten programa eta jarduerak diruz laguntzeko baldintzak eta prozedura arautzea.

Dirulaguntzen helburua da:

— Emakumeen ahalduntzea sustatzea.

— Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea.

— Indarkeria matxistaren prebentzioa lantzea.

— Hezkidetza eta erantzunkidetasuna sustatzea.

— Emakumeen parte-hartze soziala eta politikoa indartzea.

— LGTBIQ pertsonen eskubideak eta ikusgarritasuna sustatzea.

— Berdintasunaren inguruko sentsibilizazioa bultzatzea.

*II. Araudi erregulatzailea.*

Dirulaguntza hauen araubidea honako hauetan oinarrituko da: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legea, Mutrikuko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra eta Oinarri hauetan eta urtero onartuko den deialdian xedatutakoa.

*III. Onuradunak.*

Dirulaguntza hauek honakoek eskatu ahal izango dituzte: Emakumeen elkarteek, Elkarte feministek, LGTBIQ kolektiboaren alde jarduten duten elkarteek, zein Berdintasunaren sustapenean diharduten irabazi asmorik gabeko elkarteek.

Eskatzaileak legez eratuta egon behar dira eta dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egon. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan beharko dituzte, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako debekuren batean egon gabe, eta burutuko dituzten jarduerak Mutrikun garatu edo Mutrikuko herritarrei zuzenduta egon beharko dira.

## AYUNTAMIENTO DE MUTRIKU

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 24 de junio de 2026, aprobó las bases reguladoras del programa de subvenciones a asociaciones, entidades e instituciones que desarrollen su actividad en el ámbito de igualdad en Mutriku para el ejercicio 2026.

Teniendo en cuenta las bases expuestas, se procede a realizar la convocatoria correspondiente a esta subvención, abriendo el plazo de presentación de solicitudes.

Mutriku, a 30 de junio de 2026.—La alcaldesa. (4571)

*Bases reguladoras de las subvenciones del Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Mutriku. Subvenciones a asociaciones de mujeres, asociaciones feministas y LGTBIQ.*

*I. Objeto.*

El objeto de estas bases es regular las condiciones y el procedimiento de subvención de los programas y actividades que las asociaciones de mujeres, feministas y LGTBIQ desarrollan para promover la igualdad de mujeres y hombres en Mutriku.

El objeto de las subvenciones es:

— Promover el empoderamiento de las mujeres.

— Impulsar la igualdad de mujeres y hombres.

— Trabajar la prevención de la violencia machista.

— Fomentar la coeducación y la corresponsabilidad.

— Potenciar la participación social y política de las mujeres.

— Promover los derechos y la visibilidad de las personas LGTBIQ.

— Impulsar la sensibilización en materia de igualdad.

*II. Normativa reguladora.*

Estas subvenciones se regirán por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, la Ley de Bases de Régimen Local, la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Mutriku y lo dispuesto en estas Bases y en la convocatoria que se apruebe anualmente.

*III. Beneficiarios.*

Podrán solicitar estas subvenciones las asociaciones de mujeres, las asociaciones feministas, las asociaciones que trabajan a favor del colectivo LGTBIQ y las asociaciones sin ánimo de lucro dedicadas a la promoción de la igualdad.

Las asociaciones solicitantes deberán estar legalmente constituidas e inscritas en el registro oficial correspondiente. Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, sin estar incursas en ninguna de las prohibiciones previstas en el artículo 13 de la Ley General de Subvenciones, así como desarrollar sus actividades en Mutriku o dirigirse a la ciudadanía de Mutriku.

EK\CV GAO-I-2026-04571

*IV. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta gastuak.*

Diruz lagundu ahal izango dira prestakuntza jardunaldiak, tailerrak, hitzaldiak, sentsibilizazio kanpainak, ahalduntze eskolak, hezkidetza programak, berdintasunaren aldeko ikerketa eta dibulgazio jarduerak, LGTBIQ kolektiboaren eskubideen aldeko ekimenak edota martxoaren 8aren, ekainaren 28aren eta azaroaren 25aren inguruan antolatutako jarduerak.

Diruz lagundu ahal izango dira hizlari eta profesionalen ordainsariak, material didaktikoa, kartelak eta komunikazio gastuak, lokalen alokairua, garraio gastuak, jardueraren garapenerako beharrezkoak diren bestelako gastuak.

Ez dira diruz lagunduko opariak, otordu edo ordezkaritza gastuak, inbertsio iraunkorrak eta diruz lagundutako jarduerarekin loturarik ez duten gastuak.

*V. Eskaerak baloratzeko irizpideak.*

Dirulaguntzak norgehiagoka bidez esleituko dira, eta ondorengoak izango dira baloratzeko irizpideak eta lor daitezkeen gehienezko puntuak:

1. Elkartearen jarduera eta errotzea Mutrikun, 25 puntu gehienez.

Honako alderdi hauek baloratuko dira: Azken urteetako jarduera; herriko beste eragileekin elkarlana; eta herriko bizitzan zein berdintasunaren sustapenean izandako parte-hartzea.

2. Aurkeztutako proiektuaren interesa eta kalitatea, 35 puntu gehienez.

Honako alderdi hauek baloratuko dira: Helburuen argitasuna, jardueren egokitasuna; berdintasunaren sustapenerako ekarpena; eta proiektuaren bideragarritasuna.

3. Jardueraren eragin soziala eta parte-hartzea, 25 puntu gehienez.

Honako alderdi hauek baloratuko dira: Hartzaile kopurua; herritar guztiei irekitako izaera; eta emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea sustatzeko gaitasuna.

4. Euskararen erabilera, 15 puntu gehienez.

Honako alderdi hauek baloratuko dira: Jarduerak euskaraz egitea; eta komunikazioa eta zabalkundea euskaraz egitea.

Guztirako puntuak 100 puntu izanda, dirulaguntza eskuratzeko gutxienez 50 puntu lortu beharko dira.

*VI. Eman beharreko dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa eta diru kopuru horren izaera.*

Urteko deialdian zehaztuko da deialdi honetara bideratutako aurrekontu-kreditua.

Dirulaguntzak norgehiagoka bidez banatuko dira, lortutako puntuazioaren arabera.

*VII. Dirulaguntza ordaintzeko era eta epeak.*

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da: % 60, dirulaguntza emateko ebazpena onartu ondoren; % 40, jarduera justifikatu eta dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

*VIII. Instrukzioa.*

1. Eskabideak Berdintasun Sailak aztertuko ditu.

2. Oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, espedientea ebaluatuko da.

3. Akatsik edo dokumenturen bat falta bada, interesdunari 10 laneguneko epea emango zaio zuzenketa egiteko. Epe horretan zuzenketarik aurkezten ez bada, eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

*IV. Actividades y gastos subvencionables.*

Se podrán subvencionar jornadas formativas, talleres, conferencias, campañas de sensibilización, escuelas de empoderamiento, programas de coeducación, actividades de investigación y divulgación a favor de la igualdad, iniciativas a favor de los derechos del colectivo LGTBIQ o actividades organizadas en torno al 8 de marzo, 28 de junio y 25 de noviembre.

Serán subvencionables los honorarios de ponentes y profesionales, material didáctico, carteles y gastos de comunicación, alquiler de locales, gastos de transporte, así como otros gastos necesarios para el desarrollo de la actividad.

No serán subvencionables los regalos, gastos de comida o representación, inversiones permanentes y gastos no relacionados con la actividad subvencionada.

*V. Criterios de valoración de las solicitudes.*

Las subvenciones se adjudicarán en régimen de concurrencia competitiva, y los criterios de valoración y la puntuación máxima alcanzable serán los siguientes:

1. Actividad y arraigo de la asociación en Mutriku, hasta 25 puntos.

Se valorará la actividad de los últimos años, la colaboración con otros agentes locales y la participación en la vida de la localidad y en la promoción de la igualdad.

2. Interés y calidad del proyecto presentado, hasta un máximo de 35 puntos.

Se valorará la claridad de los objetivos, la idoneidad de las actuaciones, su contribución a la promoción de la igualdad y la viabilidad del proyecto.

3. Incidencia social y participación de la actividad, hasta 25 puntos.

Se valorará el número de personas destinatarias, el carácter abierto a toda la ciudadanía y la capacidad de promover el empoderamiento y la participación de las mujeres.

4. Uso del euskera, hasta 15 puntos.

Se valorarán los siguientes aspectos: Realizar las actividades en euskera; y la comunicación y difusión en euskera.

Siendo la puntuación total de 100 puntos, para acceder a la subvención será necesario obtener un mínimo de 50 puntos.

*VI. Cuantía máxima y naturaleza de las subvenciones a conceder.*

En la convocatoria anual se determinará el crédito presupuestario destinado a su desarrollo.

Las subvenciones se distribuirán en concurrencia competitiva en función de la puntuación obtenida.

*VII. Forma y plazos de pago de la subvención.*

El abono de la subvención se realizará en dos pagos: el 60 % tras la aprobación de la resolución de concesión; el restante 40 % tras la justificación de la actividad y la presentación de la documentación correspondiente.

*VIII. Instrucción.*

1. Las solicitudes serán estudiadas por el Departamento de Igualdad.

2. Una vez comprobado el cumplimiento de los requisitos establecidos en estas bases, se procederá a la evaluación del expediente.

3. Si hubiese defecto o faltase documento, se requerirá al interesado para que en el plazo de 10 días hábiles subsane la falta o aporte el documento. Transcurrido dicho plazo sin haber presentado la subsanación, se le tendrá por desistido de su petición.

EK\CV GAO-I-2026-04571

4. Azken ebazpena Tokiko Gobernu Batzarrak hartuko du, Berdintasun Sailak egindako espedientearen azterketa eta balorazioa kontuan hartuta.

*IX. Ebazpena.*

Dirulaguntzak emateko ebazpena Tokiko Gobernu Batzarrak hartuko du. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Epe horretan ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera ezetsitzat joko da.

*X. Dirulaguntzen bateragarritasuna.*

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuetatik jasotako laguntzekin. Inola ere ezin izango da jardueraren benetako kostua gainditu.

*XI. Justifikazioa.*

Onuradunek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute: Jardueren memoria; gastuen memoria ekonomikoa; eta fakturak nahiz ordainagiriak.

Justifikazioa dirulaguntza eman den urtearen hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da.

*XII. Onuradunen betebeharrak.*

Onuradunek dirulaguntza emandako helburuakrako erabili beharko dute, kontrol eta egiaztapen jarduerak onartuta.

Jardueretan hizkera eta irudi ez-sexistak erabiliko dituzte, euskararen erabilera sustatuta, eta Mutrikuko Udalaren eta Berdintasun Sailaren logotipoa txertatuko dute zabalkunde material guztietan.

*XIII. Dirulaguntza itzultzea eta zehapen araubidea.*

Dirulaguntza osorik edo zati batean itzuli beharko da jarduera egin ez bada, justifikazioa aurkeztu ez bada, dirulaguntza beste helburu baterako erabili bada edo oinarri hauetan ezarritako baldintzak bete ez badira.

*XIV. Datu pertsonalen babesa.*

Eskabideetan jasotako datuak indarrean dagoen datu-babesaren araudiaren arabera tratatuko dira.

*XV. Azken xedapena.*

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko guztian, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra, haren garapen araudia eta Mutrikuko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra aplikatuko dira.

4. La resolución final se adoptará por la Junta de Gobierno Local, teniendo en cuenta el análisis y valoración del expediente realizado por el Departamento de Igualdad.

*IX. Resolución.*

La resolución de concesión de las subvenciones será adoptada por la Junta de Gobierno Local. El plazo máximo para resolver y notificar será de seis meses. Transcurrido dicho plazo sin haberse notificado resolución alguna, la solicitud se entenderá desestimada.

*X. Compatibilidad de las subvenciones.*

La concesión de estas subvenciones será compatible con la obtención de otras subvenciones o ayudas por parte de otras Administraciones o entes públicos o privados. En ningún caso se podrá superar el coste real de la actividad.

*XI. Justificación.*

Los beneficiarios deberán presentar la siguiente documentación: Memoria de actividades, memoria económica de gastos y facturas y recibos.

La justificación deberá presentarse antes del 31 de enero del año siguiente al de la concesión de la subvención.

*XII. Obligaciones de los beneficiarios.*

Los beneficiarios deberán utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida, aceptando las actuaciones de control y comprobación.

En las actividades se utilizará un lenguaje e imágenes no sexistas, fomentando el uso del euskera, y se incorporará el logotipo del Ayuntamiento de Mutriku y del Departamento de Igualdad en todos los materiales de difusión.

*XIII. Reintegro y régimen sancionador.*

Procederá el reintegro total o parcial de la subvención en el caso de que no se haya realizado la actividad, no se haya presentado la justificación, se haya utilizado la subvención para otra finalidad o se hayan incumplido las condiciones establecidas en estas bases.

*XIV. Protección de datos de carácter personal.*

Los datos contenidos en las solicitudes serán tratados de acuerdo con la normativa vigente de protección de datos.

*XV. Disposición final.*

En todo lo no previsto en estas bases será de aplicación la Ley General de Subvenciones, su normativa de desarrollo y la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Mutriku.

EK\CV GAO-I-2026-04571